

EDITORIALA

Itxi ezinean

Hedabide euskalduna, euskaraz eginko hedabidea itxi zutela bost urte bete berri dira. Gau hartako itxialdiaren berria, "Egunkaria itxi dute", miaketak eta atxiloketekin batera etorri zen. Ondoren, atxilotuek jasan behar izan zitzuten sufrikarioak amaizezineko gau eta egun luzeetan eman ziren. Eraso bortitza, itzela izan zen. Hedabidea izateagatik, euskaraz eginkoia izateagatik euskalgintza osoa kolpatu nahi izan zuten itxiera zela medio.

Berehalako erantzun sendoa eman genion herritarrok barne-barnean urratua izan zitzagun sentipena amorrutz adierazteko. Epe motzean antolatu zen manifestaldian biziki ikusi genuen egoeraren ulertezina, batetik, eta haserrean bestetik. Ez zen izan gutxiagorako. Adin, kolore, pentsamolde eta sektore oso ezberdinetako jendetzak erabakiaren aurka garrasi egiteaz gain, euskal gizartean hedabide euskalduna izateko konpromisoa berretsi zuen. Egunkaria gure artean nahi genuen. Haren haritik, Berria sortuz, hutsunea betetzeko urratsak ezarri ziren.

Ez zen ordea zauria itxi eta, bost urtetako gaualdi luzearen aitzinean, atxilotuak izan zirenak ere Auzitegi Nazionalaren epaien zain daude. Gutxira etor daitezkeen epaiak dira. Sinestezina badirudi ere eskatzen zaizkien diru isunak eta kartzela urteak ia kontaezinak dira. Madrilgo esparru ezberdinetan ez dituzte kontutan hartzan, ez dituzte kontutan hartu nahi, auzia bertan behera uzteko euskal gizarteak hainbat aldiz adierazi duen exijentzia. Entzungo-renak eginez, aurrera diraute prozedurarekin.

"Egunkaria libre" lemapean euskalgintza, babes taldea eta auzipetuek egoeraren larria plazaratu dute. Bide batez, etor daitekeenaren aurrean adi egoteko eskaera luzatu dute, beste behin, behar bezalako erantzuna prestu izateko. Halaxe behar du. Herri nortasuna isilarazten saiatu den erasoari erantzun zabala, anitza eta plurala dagokio, adin, kolore eta pentsamendu ezberdinak biltzen aha- leginduko den erantzuna.

Joseba Villarreal destaca el incremento salarial del 1,62% por encima del IPC logrado en la negociación de empresa

NUESTRO RETO SINDICALIZAR LA EMPRESA

La negociación colectiva en la empresa durante el 2007 ha tenido una evolución positiva. Se han negociado y revisado 514 convenios en el ámbito de la empresa, que arrojan resultados positivos, especialmente en materia salarial y en la lucha contra la precariedad. La subida fue del 4,24%, mientras que la jornada se situó en 1.674 horas anuales, diez por debajo de la media sectorial.

Si dejamos a un lado los convenios revisados, podemos apreciar que la negociación en la empresa se ha mantenido al mismo ritmo que los últimos años. ELA ha participado en la negociación de 251 convenios de empresa que afectan a 51.214 trabajadores y trabajadoras, con un incremento salarial del 4,32%, un 1,62% por encima del IPC. Joseba Villareal, responsable de negociación colectiva, destaca la importancia de sindicalizar la empresa.

-¿Qué opinas de estos resultados?

-Como ya lo destacamos en la valoración de negociación colectiva sectorial, la negociación del 2007 ha sido muy completa, tanto en este ámbito como en la empresa. La principal conclusión es que en toda acción sindical en la negociación colectiva ha estado ELA.

En aquellos sectores, como el metal, donde la negociación está bloqueada, hemos conseguido extender y generalizar los pactos y acuerdos de empresa.

Los incrementos salariales, aunque han sido importantes, no nos han permitido ganar terreno en la distribución de la riqueza, debido a que los empresarios han ganado mucho dinero. Tenemos que convertir la negociación colectiva en un instrumento de reparto de la riqueza. No es de recibo que ante situaciones de discriminación y sueldos de mil euros, nos conformemos con incrementos del IPC.

La subrogación y la homologación han sido objetivos, que desde distintos niveles, se han planteado con fuerza en las empresas, con unos resultados que nos permiten ser optimistas en este campo.



Cabe destacar que la reducción de jornada, aunque moderada, ha sido una constante en los pactos de empresa y seguirá siéndolo en el 2008.

-Junto a la jornada ¿qué otros objetivos se plantean para el 2008?

-Hace unas semanas se conocieron los datos del IPC del 2007. Una subida que pulveriza la que se ha registrado en otras zonas de la Unión Europea. Una de las razones que explica este diferencial es el crecimiento de los beneficios empresariales.

Ante esta situación tenemos que ser ambiciosos y plantear, también en la empresas, subidas salariales sensiblemente superiores al IPC. La llamada moderación salarial ha contribuido a que los trabajadores y trabajadoras hayamos perdido posiciones en el reparto de la riqueza.

La lucha contra la discriminación y la mejora de las condiciones de empleo se puede abordar desde la empresa en mejores condiciones. Para ello es necesario contar con un diagnóstico real de la empresa (condiciones laborales, sala-

riales, discriminaciones...) y trabajar la negociación colectiva de forma permanente y organizada.

-Has entrado en un tema clave en las empresas, como es la organización y composición de las secciones sindicales.

-Efectivamente. Es evidente que para confrontar con la patronal hemos tenido que mejorar nuestra forma de trabajar en la empresa, en las secciones sindicales. Durante este año hemos dado un salto en este sentido y seguro que en el 2008 podemos avanzar más en esta dirección.

Tenemos que ser conscientes de que si no logramos sindicalizar las empresas, llegar a nuestros militantes y afiliados y afiliadas, no es posible nuestro modelo sindical de confrontación con la patronal, no tiene recorrido. Para ello, tenemos que trabajar la negociación colectiva, marcando prioridades y objetivos, fomentando e impulsando la participación de los trabajadores y trabajadoras. Nuestro único límite está en la capacidad que tengamos de organizar a la gente.

"Ezinbesteko da empresak sindikatztea"

"Enpresetan negoziatu diren lan itunetan %4,32ko soldata igoera lortu dugu, eta hori oso positiboa da"

ELA valora muy positivamente el seguimiento de la huelga del jueves 21 de febrero en Osakidetza y sigue apostando por la movilización

NO HAY ACUERDO CON ELA EN OSAKIDETZA



La respuesta del personal de Osakidetza a la convocatoria de huelga del 21 de febrero ha sido "muy importante" a pesar de las maniobras desmovilizadoras de última hora. Nere Urrestarazu, responsable del sector, afirma que la presión y la unidad de acción obligaron a Inclán a reabrir nuevamente la mesa negociadora tras su "decretazo" y que ese es el camino a seguir para lograr un acuerdo positivo para el conjunto de los trabajadores y trabajadoras del Servicio Vasco de Salud.

-¿Qué valoración hacemos de este jueves de huelga en Osakidetza?

-Valoramos muy positivamente la respuesta que los trabajadores y trabajadoras del sector han dado a la convo-

catoria de huelga llevada a cabo el 21 en los diferentes hospitales y centros de Atención Primaria de Osakidetza. Especialmente importante ha sido la huelga en Cruces, en el Hospital Donostia y en Atención primaria de Gipuzkoa y Álava.

-La víspera de la huelga, a las 9 de la noche, el sindicato Satse se descolgaba de la misma, a pesar de que horas antes, en la reunión de la intersindical, había apostado por el mantenimiento de la huelga. ¿Qué supone esta espantada del sindicato de enfermería?

-ELA no va a entrar a valorar el comportamiento del Satse. Que sean ellos los que expliquen a su gente y al conjunto del sector la actitud que han venido manteniendo en el proceso negociador.

Respecto a la huelga creo, sin embargo, que la actuación del Satse ha tenido un efecto rebote. El cabreo era generalizado entre los auxiliares administrativos, enfermería y celadores. Incluso entre las propias enfermeras, muchas de las cuales han secundado la huelga descalificando la decisión de Satse. La gente no ha entendido la alegría y nocturnidad con la que se ha tomado esta decisión.

-Una vez más la administración juega sucio.

-La administración ha intentado romper la unidad de acción sindical porque esa es nuestra fuerza. Ha utilizado, además, el chantaje para intentar evitar esta nueva jornada de huelga, amenazando con cerrar la negociación si no desconvocábamos el paro.

La Administración está actuando como un auténtico francotirador, intentando romper la cuerda por la parte más débil, e intentando dividir a los trabajadores y las trabajadoras sin dar

una respuesta a las necesidades de todos los colectivos.

Pero a ELA no le marca los ritmos la administración sino los trabajadores y trabajadoras.

-Como decíamos antes, la víspera de la huelga, el miércoles a la tarde, Osakidetza remitió vía e-mail una nueva oferta a los sindicatos. ¿Cómo valora ELA esta oferta?

-El 19 hubo reunión de mesa sectorial en la que Osakidetza presentó una oferta que nos pareció insuficiente y que los trabajadores/as rechazaron en asambleas.

Entrando en el contenido, esta última oferta ahonda en las diferencias entre colectivos y mantiene los elementos de discriminación y los agravios comparativos establecidos en el decreto impuesto por la Administración en diciembre de 2007.

Además, no reconduce los elementos perversos que amenazan con la privatización del sistema público de salud: nos estamos refiriendo al pago del complemento de exclusividad sin ningún tipo de contrapartida, y a la ausencia de cualquier tipo de control en la auto-concertación.

Al día siguiente, a las 8 de la noche, vía mail y en víspera de la huelga, llegó la última oferta de Osakidetza. Una primera valoración que hacemos es que esos no son los modos; que las propuestas hay que hacerlas en la mesa sectorial. Estamos valorando y analizando esta última propuesta que compartiremos con el conjunto de liberales/as y la afiliación.

-ELA, por tanto, se mantiene en la lucha.

-Para ELA éste es un conflicto por las condiciones de trabajo y la defensa de un modelo sanitario público. Si la administración persiste en su empeño de privatizar la sanidad pública, evidentemente va a ser un conflicto que se va a mantener en el tiempo. Además, como decía antes, la lucha que hemos realizado ha demostrado que da frutos, y que ese es el camino.

"ELAk borrokatzen jarraituko du Osakidetzan akordio on bat lortzeko"

"Langileek greba deialdiari eman dioten erantzuna oso garrantzitsua izan da, are eta gehiago Satseren jarrera ikusita"

"Administrazioak soka alderik ahulenek apurtu nahi du, langileak zatitzuk sektoaren beharrei erantzuten ez dizkieten proposamenak luzatzen dituzten bitartean"

ELB sindikatuko 6 kide epaitu dituzte Baionan 'Kako Auzia' dela eta

SARKOZY-REN EGIA... ETA ERREALITATEA



Otsailaren 21ean ELBko sei kideren aurkako epaietako egin zen Baionako Auzitegian. Ehunka lagun batu ziren auzitegiaren atarian auziperatutako sei laborariei epaietako babesera emateko. ELAren ordezkaritza bat ere bertan izan zen Fred Larrañaga, Virginie Brunet, Beñat Etxeto, Jean Mixel Aizagirre, Frantxoa Irigoien eta Mixel Dunaperi elkartasuna adierazteko. Epaiketaren deliberoa martxoaren 13an izango da.

Xabier Harlouchetek, Manu Robles-Arangiz fundazioak Iparraldean argitaratzen duen Alda! aldzikariaren koordinatzaileak, kasu honen inguruko kla-

beak hobeto ulertzeko puntuz-puntuko bat prestatu du.

Iparraldeko errealitatea

Iparraldean, laborarien munduan, baserrien segida hartzearren gaia oso garrantzitsua da. Datozen 10 urteetan erretretara joan behar diren laborarien erdiak ez du bere baserriaren segidaren hartzeko ondorengorik... Hain xuxen ere Euskal Herriko Laborantza Ganbareen (EHLG) erronketarik bat da baserri horien segidaren segurtatzeko moldeak bultzatzea eta erraztea. Horretarako EHLGk baserri gabeko proiektu eramaleei besteak beste aholkularitza administratibo eta juridikoa ekartzen die.

Kasu konkretu bat

Fred Larrañaga (Baionakoa) eta haren andrea Yasmine (Frantziako Lyongoa) duela bi urte, laborari gisa lanean hasi dira Kako baserrian, Ainharken (Zuberoan). Ordu arte baserri hura lantzen zuen Godement familialak hainbat hilabete, etxaldearen nagusiak (Parisen bizi den Errekart andreak) etxaldea salgai ezerri duenean, agertu den erosle bakarra Fred Larrañaga izan da.

Funtsezko arazoa

Laborari lurrik laborarentzat hartzeaz arduratzen den Safer erakundeak izena emateko epea luzatu die etxaldeaz jabetu nahi dutenei. Kontuan hartu gabe Fred eta Yasmine-ek duten harremana etxaldearekin: duela bi urte bertan lanean ari dira, han bizitzeko errentamendu kontratu batekin ere... Horrez gain, bikoteak lekuo ardi arrazarekin sor-markako esnea biltzen du eta GFA elkartearren bidez ehunka laguntzaileen diru laguntza lortu du etxaldearen erosteko. Hala ere Safer erakundeak, Donapaleun urtarrilaren 17an, epez kanpo izena eman duen beste bikote baten aldeko iritzia eman du. Azpimarratzeko da bikote horrek *lacaune* arrazako ardiak hazten dituela (hemengo ingurumena eta berezitasunentzat ez direnak egokienak)...

Ondorioak

Urtarrilaren 17ko erabaki egunean

ELBko kideak Safer-arekin bilera bat lortu nahian mobilizatu dira. Istiluak izan dira han ziren jendarmeekin eta sei laborariri taldean egindako bortizkeria balatzea leporatu diete otsailaren 21eko auzian. Alta, Sarkozy, Frantziako presidenteak ez du parada galdu Pauko komisarian urtarrilla bukaeran egin duen bisitan euskal laborariak "arraza-keria eta terrorismoarekin" lotzeko... Kolpe mediatico horrek ez du tokiko jendartea izutu. Zenbait egunez, labarriek lortu dute 575 hautetsiren sostengua (horietan iparraldeko 159 herrietako 58 auzapezek, hots ia barnealdeko herri guzietakoak!).

Zertan gira

Otsailaren 21eko auzian sei laborariak 10 orduz egon dira auzitegian, kanpoan 400 pertsonatik goiti, ELAko ordezkaritza barne, sustengua ekartzen ari zirela. Prokuradoreak tratamendu gogorra eta karikaturala ekarri du gaia-ri. Azken finean, "presione eta beldurra" erabiltea akusazio pean, isun amandak 600 eta 1800 arteko euro artean arriskatzen dituzte bost laborariak eta bi hilabeteko presondegia (epaias suspentsoan dela) auzipetua den emazte bakarrak.

Está en juego quién y dónde se deciden las cuestiones que afectan a Ipar Euskal Herria

EHAK ETA EAE-ANV-REN ILEGALIZAZIOEN AURKA

ELA deitura ehunka lagun bildu ziren otsailaren 21ean Bilboko Justizia Epaitegiaren aurrean EHAK eta EAE-ANV alderdien ilegalizazioa salatzeko. Bilkura isolaren ostean ondorengo komunikatua irakurri zen.

ELA behin baino gehiagotan azaldu da Alderdien Legearen aurka, eta baita ere, partehartze politikorako eskubidea murriztea ekarri duen Procedura Kriminalaren Legea oker erabiltzearen aurka. Orain, ELAk jendaurrean salatu nahi du legez kanpo utzitako erakundeen eta haien kideen babes gabezia, eta baita prozesu horien arbitrariotasuna ere. Nahierara jokatze horrek sustatzen duen kultura politikoan giza eskubideak ez omen dira kontrako alderdian daudenentzat.

ELA Alderdien Legea indargabetzeko eskatzen du, herri honetako gehiengo politikoak eta sozialak uko egiten baitio. Eta herri hau baino ez zuten gogoan parlamentariek legea prestatu zutenean, eta herri hau baino ez dute gogoan Espaniako gobernuak aplikatzen dutenean. Eskubideak dituzten milaka pertsonen adierazpen politikoa bertan behera uztea onartezina da demokrazian. ELA gogorarazi nahi du, hauteskunde-adierazpena honek ordezkatzen duen eremu sozio politikoa hainbat aldiriz zilegiztaturik izan dela bozketetan eta, alde horretatik ere, beharrezko da bere presentzia herri honetan.

Bestalde, "ingurune" doktrina erabiltzearen ondorioz sortu den egoera sozial eta politikoaren larritasuna azpimarratu nahi dugu ELAtik. Izan ere, euskal

gatazkari izaera politikoa ukatzeko ez ezik, orain hainbat pertsona kondenatzen da, banda armatuko kide direlakoan, edo hari lagundi diotelakoan, eta egaitan bestelako kontuetan ari izan dira, besteak beste, ideiak zabaltzen, presoen eskubideak betearazten, torturak eta tratu txarrak salatzen, euskara sustatzen edo gizarte-mugimendua, orokorrean, bultzatzen.

Erabaki horiek guztiek argiro erakutsi digute espainiar estatuak ezin diola euskal gatazkari heldu, bide politikoetatik, behintzat; eta beraz, gero eta sinistruago gauade Estatuak nekez eskain dezakeela irtenbide demokratikorik. Hori beste arrazoi bat izan beharko zen, ELAren iritziz, aldaketa politikoaren alde dauden euskal indarren borroka-moduak eta jokabide politikoak berraztertzeko, eta eskubide-urratzeak zuritzeko balio dutenak alde batera uzteko. ELAren ustez, berrazterte horrek orain arte ikusi ez ditugun bideak irekiko lituzke prozesu politikorako, Estatu-indarkeria estaltzen duten tresnak desegin, eta erasoen maila bereko gizarte-erantzunak antolatu.

ELAren Nazio Batzordeak euskal esparru juridikoak jasaten duen etengabeko karruskapena salatu nahi du, berez menpekoa eta ordezkao den markoa, hain zuzen. Karruskapen honen erakusle dira legez kanpo uzteak ere, estatuen interesen arabera onartu eta debekatzen baitira euskal hauteskunde-adierazpenak, bertako autogobernuaren erakundeei inongo babesera emateko aukera zapuzten zaiolarik.

Guzti horregatik, eskubide guztiak bermea babes-

tea eskatzen du ELA eta halaber Euskal Herria inguru duen salbuespen egoerarekin behin behingoz amaitzea exijitzen dugu.



ELA exige la derogación de una ley –la de partidos– que es rechazada por la mayoría política y social de este país



ELAk aurkeztu duen txosten batek erakusten duenez gero eta larriagoa da Nafarroako osasun publikoaren egoera. Azterketa bulegoko kide Imanol Pascualek salatzen duenez, UPN-CDNKO Gobernua egiten ari den politiken ondorioz Osasunbideak saturazio-sintomak agertzen ditu.

-Nafarroako osasun publikoak gabezia larriak ditu. Zeintzuk dira egoera larri honen arrazoia?

-Bi arrazoi nagusi aipatuko nituzke. Batetik, azken urteetan egiten ari den gastua ez da nahikoa. Barne Produktu Gordinaren portzentajea aztertzean ikusten da Nafarroan ez dela behar adina gastatzen osasunean. 2004an (azken datua urte horretako baita) BPGaren %4,7 bideratu zen osasuneko gastura, 15-EBko batez bestekoa %6,7koa izan zelarik. Hau da, 15-EBn baino 213 milioi euro gutxiagoko gastu publikoa egin zen. Datuok 2004koak dira, baina Nafarroako osasun-gastuaren bilakaera aztertzen badugu, oraingo egoera orduko bera dela ondoriozta dezakegu, gastua geldirik ageri da eta. Joerak bere horretan jarraitu du 2008rako onartutako aurrekontuetan.

Bestetik lan-zama gero eta handiagoa da, biztanleria eta zahartze-indizea hazi ahala. Lan-zama areagotzen ari dela erakusten duen lehenengo adierazlea bizi-

Imanol Pascual, azterketa bulegoko kidea

"OSASUNBIDEA, GAINEZKA"

tanleriaren hazkunde da, bai eta zahartze-indizea ere. 2006an, 50.000 biztanle gehiago zituen Nafarroak 2000n baino. Era berean, 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa ere gero eta handiagoa da. Ospitaleratzeak, larrialdiak, konsultak eta kirurgiako jarduerak erritmo konstantean ari dira ugaritzen 2000tik aurrera.

-Zein ondorio ditu egoera honek?

-Sistemaren ahalmena gainditzen ari da eta, ondorioz, haren kalitatea gero eta txarragoa da. Okupazio-indizeak gora egin du azken urteotan. Igoera horrek eta baliabide materialen eskasiak eraginda, Osasunbidea batez besteko egonaldia laburtu eta txandaketa-indizea igo beharrean dago.

Beharrezko materialen gabezia ere hartu behar da aintzat; ohe-kopuruari erreparratu besterik ez dago. Osasunbidea Europako batez bestekoaren oso azpitik egoteaz gain, aldagai hori atzerantz doa. 2000n, 2,6 ohe zeuden 1.000 biztanleko; 2006an, berriz, 2,2 ziren. Europako batez bestekoaren aldean, gorritzeko moduko zifra da hori, Europan 1.000 biztanleko 5,9 ohe daudela ikusirik.

Osasunbidea gero eta okerrago dagoela argien era-kusten duten alderdietako bat itxarote-zerrendak dira. Zerrenda horiek, murriztu beharrean, gero eta luzeagoak dira. 2006an, ebakuntza kirurgikoa egiteko zain zeuden pertsonen kopurua 2000koaren ia bikoitzaz. Lehenengo konsultaren zain daudenak 2000koak halako bi baino gehiago ziren.

Lan-baldintzak gero eta txarragoak direla ere hartu behar dugu kontutan. Osasun-sistemako langileak ere

ez dira geratzen Nafarroako instituzioen politika neoliberalaren ondorioen eraginpetik kanpo, ondoriook euren lanbaldintzetan islatzen dira eta. Orango plantilla ez da nahikoa esleitzen zaion lan-zama bere gain hartzeko, bereziki langileek kolokako baldintzetan ari-tu behar dutelarik.

-Zer proposatzen du ELAk?

Lehendabizi eta oinarrizkoena osasuneko gastu publikoa areagotzea da, Europako batez besteko gas-tuarekin parekatzea. Osasuneko gastu publikoari BPGan dagokion portzentajea Europar Batasuneko batez bestekoaren mailara igo beharko litzateke. Baliabide materialak ere ugaritu beharko lirateke. Europako zifretara hurbiltzeko. Osasun arloa bitarteko material gehiagoz hornitzea ezinbestekoa da.

ELArentzat oinarrizko da herritarrek kalitatezko osasun sistema publiko eta guztiz doakoa izatea. Horretarako sare publikoa sustatu beharko litzateke. Pribatizazio gehiago ez egiteko konpromisoa hartzeaz gain, urteotan egin diren azpikontratazioak lehengoratu egin behar dira. Eta, noski, lan-alderdien inguru politika egokiak ere behar beharrezkoak dira: plantilla handitzea, behin-behinekotasun urritzea, langileen lan-baldintzak hobetzea (erretiroa aurreratzea, eroskeko ahalmena berreskuratzea,...)

La política del gobierno de UPN está deteriorando la sanidad pública navarra cada vez más

L abur Breves

● ELA muestra su satisfacción ante la no apertura en festivos por parte de Eroski

Eroski ha dado marcha atrás en su intención de comenzar a abrir en festivos durante el año 2008. Esta noticia difundida por la dirección del grupo cooperativo mediante una nota a toda la plantilla es una gran victoria para quienes trabajan en el comercio.

Eroski ha intentado una vez más, modificar la situación actual en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa aun a costa del descanso en festivos de quienes trabajan en el sector del comercio. Las movilizaciones planteadas por ELA y LAB ante esta decisión han sido un nuevo con-

éxito, con una participación masiva de trabajadoras del comercio.

Ante estas movilizaciones Eroski ha dado marcha atrás. ELA considera que la movilización es el camino a seguir en su defensa de un consumo responsable que sea respetuoso con los derechos de quienes trabajan en el comercio.

● Cinco años sin Euskaldunon Egunkaria

El 20 de febrero se cumplieron cinco años del cierre de Euskal Egunkaria por orden del juez de la Audiencia Nacional Juan del Olmo. Para denunciar lo sucedido y mostrar la solidaridad a todas las personas imputadas por el caso el martes pasado se ha realizado una concentración en el parque Martín Ugalde de Andoain. Una amplia delegación de ELA, encabezada por su secretario general Jose Elorrieta, ha tomado parte en la misma.



www.elasindikatua.org

ELA astekaria

Barainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

www.elasindikatua.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**